

04/N Zirkularra
2025/2026

EUSKAL HERRIKO JUNIOR ETA ABSOLUTU TXAPELKETA, NEGUA 2025-2026

1. DATAK: 2026ko otsailaren 21 eta 22
2. LEKUA: Amaya C.D., Pamplona - Iruña
3. ORDUTEGIAK: Zehazteke
4. IGERILEKUA: 50m. eta 8 kale krono elektronikoarekin
5. PROBEN PROGRAMA

1. SAIOA (2026/02/21)				
1.-	200	Libre	Gizonezkoak	J, A
2.-	100	Libre	Emakumezkoak	J, A
3.-	200	Estiloak	Gizonezkoak	J, A
4.-	400	Estiloak	Emakumezkoak	J, A
5.-	50	Tximeleta	Gizonezkoak	J, A
6.-	50	Tximeleta	Emakumezkoak	J, A
7.-	200	Bizkar	Gizonezkoak	J, A
8.-	200	Bizkar	Emakumezkoak	J, A
9.-	800	Libre	Gizonezkoak	J, A
10.-	4x200	Libre	Emakumezkoak	A
11.-	4x100	Libre	Gizonezkoak	A
3. SAIOA (2026/02/22)				
23.-	200	Bular	Emakumezkoak	J, A
24.-	200	Bular	Gizonezkoak	J, A
25.-	50	Bizkar	Emakumezkoak	J, A
26.-	50	Bizkar	Gizonezkoak	J, A
27.-	100	Tximeleta	Emakumezkoak	J, A
28.-	100	Tximeleta	Gizonezkoak	J, A
29.-	400	Libre	Emakumezkoak	J, A
30.-	1500	Libre	Gizonezkoak	J, A
31.-	4x100	Estiloak	Mistoa	A

2. SAIOA (2026/02/21)				
12.-	200	Libre	Emakumezkoak	J, A
13.-	100	Libre	Gizonezkoak	J, A
14.-	200	Estiloak	Emakumezkoak	J, A
15.-	400	Estiloak	Gizonezkoak	J, A
16.-	100	Bizkar	Emakumezkoak	J, A
17.-	100	Bizkar	Gizonezkoak	J, A
18.-	50	Bular	Emakumezkoak	J, A
19.-	50	Bular	Gizonezkoak	J, A
20.-	800	Libre	Emakumezkoak	J, A
21.-	4x200	Libre	Gizonezkoak	A
22.-	4x100	Libre	Emakumezkoak	A
4. SAIOA (2026/02/22)				
32.-	200	Tximeleta	Gizonezkoak	J, A
33.-	200	Tximeleta	Emakumezkoak	J, A
34.-	50	Libre	Gizonezkoak	J, A
35.-	50	Libre	Emakumezkoak	J, A
36.-	100	Bular	Gizonezkoak	J, A
37.-	100	Bular	Emakumezkoak	J, A
38.-	400	Libre	Gizonezkoak	J, A
39.-	1500	Libre	Emakumezkoak	J, A
40.-	4x100	Estiloak	Gizonezkoak	A
41.-	4x100	Estiloak	Emakumezkoak	A

6. PARTE HARTZEKO ADINAK

6.1. KATEGORIAK:

ABSOLUTUA	Adin guztiak
JUNIOR 1	2010
JUNIOR 2	2009-2008

6.2. Denboraldi honetarako indarrean dauden federazio-lizentzia duten igerilariak (EIF-FVN eta FNN-NIF) bakarrik parte hartu ahal izango dute, baldin eta gutxieneko marka egiaztatzen badute, “25-26 denboraldiko gutxieneko markei” dagokien zirkularraren arabera, kategoria absolutuko eta kategoria juniorreko igerilariarentzat. 2006an eta 2007an jaiotako igerilariak kategoria absolutuko igerilaritzat hartzen dira ondorio guztietarako, gutxienekoetarako izan ezik.

6.3. EIF-FVNk eta FNN-IFZk beretzat gordetzen dute bertako kide ez diren klubetako igerilarien parte-hartzea onartzeko eskubidea.

6.4. Parte hartze markak baliozkotzat jotzen dira **2024ko abenduaren 14tik aurrera**.

6.5. Baliozkotzat joko dira lehiaketan lortutako erreleboetako gutxieneko markak edo erreleboko kideen denboren batura; kasu horretan, inskripzioan igerilari bakoitzaren izena agertu beharko da, bai eta marka eta hura lortu zuen data ere.

6.6. Klub bakoitzak nahi adina igerilari aurkeztu ahal izango ditu proba bakoitzean, betiere 6.2 puntua betetzen badute.

6.7. Igerilari bakoitzak gehienez LAU banakako probatan eta errelebo guztietan parte hartu ahal izango du.

6.8. Klub bakoitzak errelebo talde ABSOLUTU bakarra aurkeztu ahal izango du proba bakoitzeko, eta ezarritako edozein adinetako igerilariak osatu ahal izango dute. Errelebo-probak kategoria ABSOLUTUAN bakarrik puntuatuko dira.

7. IZEN-EMATEAK

7.1. Klubek Federatio bidez bidali beharko dute izen-ematea, **otsailaren 17ko 12:00ak** baino lehen (asteartea), eta ez dira onartuko ondoren jasotakoak.

7.2. Klubek banakako zerrenda nominaletan sartu beharko dituzte errelebo-probetan soilik parte hartzen duten igerilariak.

7.3. Klubei ez zaie abisurik emango, baldin eta inskripzioen bat ez badator bat araudi honen 6. puntuan jasotako parte hartzeko baldintzekin, eta haien erantzukizun eksklusiboa izango da igerilariak ez parte hartzea. Federazio antolatzaileak ez dira ez-betetze horrek eragin ditzakeen gastuen erantzule egiten.

7.4. EIF-FVNk edo FNN-NIFek behin-behineko izen-emate zerrenda argitaratuko dute bere webgunean (www.eif-fvn.org edo www.fnn-nif.com) **otsailaren 18an**, asteazkena. Horietan antzemandako akatsak **otsailaren 19ko 10:00ak baino lehen (osteguna)** jakinaraziko zaizkio EIF-FVNri edo FNN-IFZri. Une horretatik aurrera ez da inolako erreklamaziorik onartuko.

7.5. Lehiaketa EAEn egiten bada, EIF-FVNko klubek dagokion zenbatekoa ordainduko dute inskripzio gastu gisa, Batzarraren erabakiaren arabera.

8. LEHIAKETA FORMULA

8.1. Serieak markek osatuko dituzte, jaiotze urtea kontuan hartu gabe.

8.2 Inskripzio-markak, “B” minimoen taularen arabera, dagokion probaren lehen serieetan jarriko dira.

8.2. Erlojuaren kontrako sistemaren bidez egingo da igeri.

9. BAJAK ETA ERRELEBO ORRIAK

9.1. Bajak eta errelebo-orriak idatziz eta inprimaki ofizialean jakinaraziko dira, behar bezala beteta, lehiaketaren idazkaritzan, saio bakoitza hasi baino ordu erdi lehenagora arte.

9.2. Taldeko ordezkariak edo entrenatzaileak entregatuko ditu bajak (lehiaketa honetarako akreditatuta egon beharko dute), serie-zenbakia, igerilariaren izena edo erreleboarena eta kalea zehaztuta.

9.3. Baja jakinarazi gabe proba bat egitera aurkezten ez den igerilariak (ez aurkeztua) BAI, berriz igeri egin ahal izango du eta parte hartu ahal izango du lehiaketa saio berean izena emanda dagoen probetan (banakakoak edo erreleboak).

9.4. Parte-hartzaileen zerrenda argitaratu ondoren aurkeztutako baja bakoitzeko 2 euroko isuna kobratuko da. Igerilari bat proba batera garaiz eta forman baja eman gabe aurkezten ez bada, dagokion klubak 10 euroko isuna ordaindu beharko du.

10. SAILKAPENAK ETA PUNTUAZIOAK

10.1. JUNIOR 1 (2010) eta JUNIOR 2 (2009 eta 2008) mailako sailkapen bat egingo da proba bakoitzeko.

Proba bakoitzeko sailkapen ABSOLUTUA egingo da.

10.2. Gizonezkoen eta emakumezkoen puntuen arabera klub sailkapen bat egingo da, eta JUNIOR mailako beste sailkapen bateratu bat, JUNIOR 1 eta JUNIOR 2 kategorien baturarekin. Gizonezkoen eta emakumezkoen puntuen arabera klub sailkapen bat egingo da, eta kategoria ABSOLUTUKO baterako beste bat.

10.3. Proba bakoitzeko lehen 16 sailkatuek puntuatuko dute, betiere eskatzen den gutxienekoa egiten badute. Puntuazioa 19, 16, 14, 13, 12... izango da, puntu 1 gehienez ere. Erreleboetan puntu bikoitza emango da.

11. GARAIKURRAK ETA SARIAK

11.1. 2010ean jaiotako lehen hiru sailkatuei domina emango zaie JUNIOR 1 mailako banakako proba bakoitzean. 2009-2008an jaiotako lehen hiru sailkatuei domina emango zaie JUNIOR 2 mailako banakako proba bakoitzean.

Kategoria ABSOLUTUAN proba bakoitzean lehen hiru sailkatuei domina emango zaie.

11.2. JUNIOR mailako sailkapen bateratuko lehen hiru klubei, JUNIOR mailako gizonezkoen sailkapeneko lehen hiru klubei eta JUNIOR mailako emakumezkoen sailkapeneko lehen hiru klubei emango zaie saria.

ABSOLUTU mailako sailkapen bateratuko lehen hiru klubei, ABSOLUTU mailako gizonezkoen sailkapen lehen hiru klubei eta ABSOLUTU mailako emakumezkoen sailkapeneko lehen hiru klubei emango zaie saria.

11.3. Eskudirutan 300 euroko saria emango zaio igerilari onenari, FINA taulako puntuazioaren arabera, gizonezkoetan zein emakumezkoetan, baldin eta 860 puntuak gainditzen badira banakako edozein probatan.

12. ZEHAPENAK ETA AZKEN OHARRA

12.1. EIF-FVN/NIF-FNNek beharrezko zehapenak ezarri ahal izango dituzte gutxieneko markak faltsutzen badira edo eskatutako beste baldintza bat betetzen bada.

12.2. EIF-FVN/NIF-FNNek lehiaketako zuzendari bat izendatuko dute lehiaketa honetarako, eta hura izango da txapelketa antolatzeako agintari gorena, bai eta lehiaketako epaile arbitroaren agintaritza oztopatzen ez duten erreklamazioak ebazteko ere.

12.3. Araudi honetan aurreikusten ez den guztia EIF-FVN/NIF-FNNren lehiaketen araudiaren arabera arautuko da (lehiaketa non egiten den kontuan hartuta), hala badagokio, EIFren Lehiaketen Araudi Orokorren arabera.

12.4. Federazioek eskubidea dute beren babesleak kirol materiala saltzeko stand bat jartzeko.